

## MOZIO ARRUNTA

### **euskararen normalizazioaren aurkako azken epaia dela eta**

Jon Insausti Maisterrena EAJ/PNV udal taldeko bozeramaileak eta Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldekoak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten dute, euskararen normalizazioaren aurkako azken epaia dela eta.

Berriki, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko epaitegiak baliogabetzat jo du Udaltzaingoaren bi lanpostu egonkortzeko Donostiako Udalak 2022an egindako deialdia. Izan ere, auzitegiak ebatzi duenez, “diskriminatzailea” da udaltzaina izateko euskara maila jakin bat eskatzea.

Epai hau beste katebegi bat da euskararen normalizazioaren eta euskaldunen eskubideen aurka azkenaldian egiten ari den oldarraldian. Gogoan izan dezagun beste epai batek Irungo Udaltzaingoaren oposaketa ere baliogatu zuela 2021ean arrazoi bera argudiatuta. Ildo beretik, iaz, beste epai batek ebatzi zuen ezin zitzaiela euskara eskakizunik eskatu Uliazpi Fundazioako zaintzaileei. Azken hiru urteotan antzeko epaiak izan dira Berriozarren, Atarrabian, Lizarran, Laudion, Barakaldon edo Erandion, besteak beste. Eta esan bezala, hil honetan, Donostiako Udaltzaingoaren bi lanpostu egonkortzeko deialdiari buruzko epaiaren berri izan dugu.

Kezkaz ikusten dugu auzitegietatik hartzen ari diren erabakien ondorioek atzerapauso handiak eragin ditzaketela urte luzeetako ahaleginari esker lortutako eskubideetan eta kontsentsu zabalekin egiten ari den euskararen biziberritze prozesuan. Kasu honetan, Donostiako Udalak hartutako erabaki baten ildotik dator azken epaia eta administrazioarekin euskaraz komunikatzeko donostiarren eskubideari eragiten dio. Kezkaz ikusten dugu, beraz, epai horrek eta ildo beretik etor litezkeenek euskaraz bizi nahi duten donostiarren hizkuntza eskubideak urra ditzaketela, atzerapausoa ekar dezaketela udal honek, euskaingintzak, mota guztietako eragileek eta donostiar jendearteak, oro har, euskararen biziberritze prozesuan egindako bidean eta kaltetu dezaketela, era berean, euskarak Donostian duen osasuna bera. Horrez gain, kezkaz ikusten dugu Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko epaitegiaren epaiak zuzen eragiten diola udal autonomiari eta Donostiako Udalak bere zerbitzuak eta baliabideak donostiarren beharren arabera antolatzeke eta egokitzeko duen eskumen eta betebeharrari.

Donostiako Udalak konpromisoa du euskararen gaia erdigunean jartzeko eta Udalean bertan zein bere ardurapean dauden elkarte edo erakunde publikoetan euskararen

aurkako erasoak jasotzen direnean, eskura dituen baliabide guztiak erabiltzeko eraso horiei aurre eginez, hemendik aurrera ere normalizazio eta biziberritze politikak garatzeko eta euskarak etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko.

Gauzak horrela, behean sinatzen duten udal taldeek honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten dute:

- Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen die dagozkien erakundeei ez dezatela har administrazioarekin euskaraz komunikatu nahi duten donostiarren eskubideak urra ditzakeen eta Donostiako euskararen normalizazio prozesuan atzerapausoa eragin dezakeen inongo erabakirik.
- Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen die dagozkien erakundeei errespeta dezatela udal honen autonomia eta, zehatz mehatz, bere baliabideak eta zerbitzuak donostiarren beharren arabera antolatzeko eta egokitzeko duen eskumen eta betebeharra.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 16an

Jon Insausti Maisterrena  
EAJ/PNVren bozeramailea

Juan Karlos Izagirre  
EH Bilduren bozeramailea